

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2012KO AZAROAREN 16AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA

Errenteriako udaletxean, 2012ko azaroaren 16ko goizeko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen Mendoza Perez alkate jaunaren (O.E. BILDU) esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Luis M^a Diez Gabilondo
- Iruñe Balenciaga Arrese
- Garazi Lopez de Echezarreta Auzmendi
- Miren Alazne Korta Zulaika
- Jon Txasko Orgilles. (Guztiak O.E. BILDU taldekoak)
- Jose Manuel Ferradas Freijo (EE)

Bertan dago eta egintza fedatzen du Begoña Bueno Barranco idazkariordeak.

1. Gobernu Batzarrak 2012ko urriaren 19an eginiko aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2012ko urriaren 19an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri ondoren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

Onartzea 2012ko urriaren 19an eginiko ohiko bilkurari dagokion akt.

2. Errenteriako Udalerako argindarraren horniketa", Foru Kontratazio Zentralaren bitartez luzatzea.

Azaroaren 30ean amaituko da Esparru Akordiotik eratorrita "IBERDROLA GENERACIÓN, S.A."-rekin sinaturiko kontratua "Errenteriako Udalarari energia elektrikoa hornitzeko", Foru Kontratazio Zentralaren bidez.

Kontratuak urte bateko (1) iraupena du, eta gehienez ere hiru urterako luzapena, urtero urtero berritu daitekeena.

Gipuzkoako Foru Diputazioak eta "IBERDROLA GENERACIÓN, S.A."-k hitzartu dute kontratuaren lehen luzapena, hasierako kontatuan prezioak berrikusteko ezarritako aplikatu beharreko tasaren arabera.

Udal Kontu-hartzaileak txostena eman du.

Baita Kontratazio eta Ondarea Saileko arduradunak ere.

Kontratazio-mahaiko buruaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- Esparru Akordiotik eratorrita "IBERDROLA GENERACIÓN, S.A."-rekin sinaturiko kontratua LUZATZEA, "Errenteriako Udalari energia elektrikoa hornitzeko", Foru Kontratazio Zentralaren bidez. Kontratuaren epea urte batekoa (1) izango da, 2012ko abenduaren 1etik 2013ko azaroaren 30era, eta betiere Gipuzkoako Foru diputazioaren idazkian erakusten diren prezioen arabera. Idazkia irailaren 18koa da eta espedientean jasota dago.

3. Zumardiaren berrurbanizazio partziala egiteko proiektuan sartutako obrak" adjudikatzea

2012ko uztailaren 27ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez espedientea ireki zen "Zumardiaren berrurbanizazioa partziala egiteko proiektuan sartutako obrak" prozedura negoziatuaren bidez kontratatzeko.

Baliozko epean bost proposamen (5) aurkeztu dira, hain zuzen ere "EXCAVACIONES Y TRANSPORTES ORSA, S.L.", "CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L.", "URBYCOLAN, S.L.", "CONSTRUCCIONES OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L." eta "CAMPEZO CONSTRUCCION, S.A.U." enpresei dagokiena.

2012ko irailaren 10an 2. sobrea irekitzeko ekitaldia egin zen.

2012ko urriaren 23ko Kontratazio Mahaiaren akordioak proposatu zuen CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L., enpresak lizitazioa arautzen zuten Baldintza-agirietako betebeharrak betetzen zituela.

2012ko urriaren 26ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Luis M^a Muñoz Echezarraga-ri eskatu zitzaion, "CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L." enpresaren ordezkari gisa, "Zumardiaren berrurbanizazioa partziala egiteko proiektuan sartutako obrak" kontraturako proposatutako adjudikazio-hartzailea denez, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 11. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez zezan.

Interesatuak 2012ko azaroaren 9an eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita 7.591,28 euroko zenbateko behin betiko bermea ere.

Kontratazio-mahiako buruaren proposamenez.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez,

E R A B A K I D U

1. Luis M^a Muñoz Echezarraga-ri, "CONSTRUCCIONES ALZOLA, S.L."-ren izenean diharduenari, "Zumardiaren berrurbanizazioa partziala egiteko proiektuan sartutako obrak" izeneko kontratua ADJUDIKATZEA, 183.708,99 euroko zenbatekoarekin (BEZa barne) betiere hala nola espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzari jarraiki. (Zorpekoa: A-1136/12)

2.- JAKINARAZTEA adjudikazio- hartzaile izan ez diren lizitatzaile guztiei.

3.- Esleipendunari **eskatzea** 10 eguneko epean, esleipenaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, Udaletxera etortzeko kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

4.- Kontratuaren esleipena **argitaratzea** Errenteriako udalaren kontratatzailearen profilean iragarkia ipinita.

5. Alkatea espresuki **ahalmentzea** administrazio kontratua sinatzeko.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 08:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiatzatzen dut.